



GEROIA GORRIRA EKARRI

2004 • IRUNEA

6.

biltzar nagusia

Biltzarreko araudia



Biltzarreko araudia

I.- Biltzarra garatzeko metodologia

1. Biltzarraren hasiera.

Mahaia hautatu arte 6. Biltzarreko ekitaldiak zuzenduko duen Biltzarraren mahaiburutza Nazio Komiteari egokituko zaio. Honi dagokio: bilerari eta eztabaidari ofizialki hasiera ematea, kudeaketa-txostenaren onespina eta mahaiaren hautapena.

2. Araudiaren onespina

Nazio Komiteak Biltzarraren esku utziko du berau garatzeko araudiaren proposamena, aldez aurretik, Nazio-biltzarrek onetsia.

3. Kudeaketa-txostenaren aurkezpena, eztabaida eta onespina

Nazio Komiteak kudeaketa-txostena aurkeztuko du eztabaida dadin, eta horrela balegokio, onets dadin. Kudeaketa-txostena Biltzarrari ekin baino astebete lehenago eskuragarri izango dute biltzarkideek.

4. Mahaiaren hautaketa

Nazio Komiteak, aldez aurretik Nazio-biltzarrek onetsirik, Biltzar-Mahaiaren proposamena aurkeztuko dio Biltzarrari, honek aintzakotzat har dezan.

- Biltzar Mahaia mahaiburuaz eta zortzi kidez osatuko da. Pertsona hauek hautatzean lurralde, sektore, genero, adin, .. irizpideak hartuko dira kontuan. Mahaia euskaraz baino ez da mintzatuko eta aipatutakoen artean banatuko ditu bere ardurak.
- Behin Biltzarreko Mahaia hautatu ostean, kargua uzten duen Komite Nazionalak amaitutzat joko ditu bere eginkizunak, eta Mahaiak ordezkartzaren ardura eta Biltzarraren nondik norakoei zein garapenari dagozkien gai guztiak bere gain hartuko ditu.
- Mahaikideren batek emendakinen bat aurkeztu izan balu, honen defentsa onartuko duen beste biltzarkide baten esku utzi beharko du.

5. Ponentzien eta emendakinen eztabaida eta onespina

Ponentzia aurkeztu ondoren, emendakinak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko erabiliko den ordenari dagokionez, lehenengo eta behin, osoko emendakinak hartuko dira, eta ondoren, partzialak. Beti ere, honako prozedurari jarraiki:

1. Emendakina aurkeztuko da.
2. Ponentzia batzordearen iritzia.
3. Biltzarkideen eztabaida.
4. Emendakinaren egileen hitzaldia.
5. Ponentziagileen hitzaldia.
6. Bozketa.

Emendakinetarako batzordeak onetsi dituen emendakinak ontzat joko dira, baldin eta delegaturen batek ez badu eztabaidatzea proposatzen. Horretarako, Biltzar aurretik delegatuek onartutako emendakinen txostena izango dute, eta aldaketa edo emendakinen batekin ados ez baleude, eztabaida eta bozketa proposatzeko aukera izango dute.

6. Bozketak

Ordezkariek boto bana emateko eskubidea izango dute. Beren botoa ezin izango dute inondik inora beste inoren esku utzi. Honela erabakiko da Biltzarrean:

- Erabakitzeko estatutuetan aurrikusitako gehiengo kualifikatuen beharra dagoenean, botoak zenbatu egingo dira.
- Osoko emendakinik onets dadin, gutxienez, biltzarkide guztien boto kopuru erdia gehi bat lortu beharko du.
- Gainerako bozketetan, bozketa unean bertan leudekeen biltzarkideen gehiengo sinpleaz erabakiko da.
- Mahaiaren irizpidez, bozketan gehiengoa nabaria balitz, hau nahikoa izango litzateke onesteko, ez bada ordezkariaren batek botoak zenbatzea eskatuko duela.
- Nazio Komitea hautatzerakoan botoa sekretua izango da.

Eztabaidara ekarritako ponentziak, eta onartutako emendakinak, Biltzarreanbozkatuko dira. Behin betiko onar daitezten, bozketan parte hartuko duten biltzarkide guztien boto kopuru erdia gehi bat lortu beharko dute.

7. Nazio komitearen hautaketa

Kargua utziko duen Nazio Komiteak Biltzarrari egingo dio proposamena urrengo lau urteetarako Nazio Komite berria osatzeko. Delako proposamenak pertsonaren izen deiturak eta zer arduretarako aurkeztuko den adierazi beharko du, gutxienez.

Proposamen hau, delako hautagaia aukeratu bezain laster, Biltzarreko Mahaiari jakinaraziko zaio. momentu horretatik aurrera, eta hurrengo eguneko eguerdiko 12:00ak arte, izango da hautagai-zerrendak aurkezteko epea.

Hautagai zerrenda alternatiboak aurkeztu ahal izateko, antolakuntzako txostenean Nazio-Komiteari aurrikusten zaizkion ardura guztiak biltzeaz gain, gutxienez, batzarkideen %10eko sinadurekin abalatuko beharko dira. Inork ezin dezake bere burua, hautagai zerrenda bat baino gehiagotan aurkeztu.

Hautagai zerrenda bat baino gehiago aurkeztuko balitz, aurkezturiko zerrenda guztien arteko bozketa egingo litzateke, eta hautatzeko, bozketa unean leudekeen biltzarkide guztien boto kopuru erdi gehi bat beharko lirateke.

Honez gain, Nazio Komitearen proposamenean aurrikusitako ardura zehatzetara bakarka ere aurkez daiteke. Honelakotan, aurkezten denaren oniritziak gain, proposamenak batzarkide guztien %5eko laguntza izan beharko du. Halakoetan, ardura baterako aurkezten diren lagunen artean hautatuko da, eta hauen artean, boto gehien lortuko lukena aukeratuko litzateke.

Behin, ardura zehatzetarako egingo liratekeen bakarkako proposamen prozesua amaitua, Nazio Komite berria aurkezteko proposamena itxitzat joko litzateke. Proposamen itxi hau sekretu pean bozkatuko du Biltzarrak, eta hautatzeko, bozketa unean leudekeen biltzarkide guztien boto kopuru erdi gehi batekin beharko lirateke.

8. Jakinarazpenak

Sindikatu egiturek, lurraldekoek zein sektoreetakoek, Batzar Mahaiari eman diezazkieke, euskarri informatikoan, egoki deritzoten jakinarazpenak. Jakinarazpenek ez dute txostenen edukiekin zerikusirik izango. Biltzarreko mahaiak denak aztertuko ditu, eta hauetako bakoitza nola hartu baloratuko du .

9. Biltzarraren garapena

Nazio-Komiteak bermatuko du Biltzarra egokiro gerta dadin. Horretan, behar diren giza-baliabideak, zein teknikoak jarriko ditu. Gutxienez, hilabete bat lehenago, biltzarkideei, besteak beste, gai hauen berri emango die:

- Ordezkarien kreditazioa. Nola eta non.
- Biltzarraren ordutegia.
- Ekitaldiaren amaiera.
- Gonbidatutako ordezkariak berri.
- Garapen teknikoa: bat-bateko itzulpena, biltzarkideak non jarri,...

Saioen ordutegia

Maiatzak 21, ostirala

- 8,30 Biltzarkideen akreditazioa.
- 9,15 Biltzarraren hasiera.
- 9,50 Biltzar Nagusirako araudiaren aurkezpena, eztabaida eta onarpena.
- 10,10 Kudeaketa txostenaren aurkezpena, eztabaida eta onarpena.
- 11,40 Ordezkaritza gonbidatuen aurkezpena.
- 11,50 Komite Nazionalerako zerrendaren aurkezpena.
- 12,00 Biltzar Nagusirako Mahaiaren hautaketa.
- 12,15 Atsedenaldea.
- 12,30 Ponentzia politiko sindikalaren aurkezpena.
- 12,45 Ponentziari egindako emendakinen eztabaida eta bozketa.
- 14,00 Bazkaria.
- 16,00 Emendakinen eztabaida eta bozketaren jarraipena.
- 18,00 Atsedenaldea.
- 18,30 Emendakinen eztabaida eta bozketaren jarraipena.
- 19,45 Ponentzia politiko sindikalaren azken bozketa.
- 20,00 Eguneko saioaren amaiera.

Maiatzak 22, larunbata

- 9,00 Saioaren hasiera.
- 9,05 Antolakuntza ponentziaren aurkezpena.
- 9,20 Ponentziari egindako emendakinen eztabaida eta bozketa.
- 11,30 Atsedenaldea.
- 12,00 Komite Nazionalerako hautagaiak aurkezteko epearen bukaera.
- 12,05 Emendakinen eztabaida eta bozketaren jarraipena.
- 13,15 Antolakuntza ponentziaren azken bozketa.
- 13,30 Komite Nazionalaren hautaketa.
- 14,00 Bazkaria.
- 16,30 Amaiera ekitaldia.
 - Agurra
 - Ordezkaritza eta gonbidatuen agurra
 - Komite Nazionalaren aurkezpena
 - Idazkari Nagusiaren hitzaldia
- 18,30 6. Biltzarraren amaiera.